

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko apirilaren 19a. IX. urtea. 2.394. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Larunbatean Alegiako irteera puntutik 77 auto aterako dira V. Ñañarri Rallyesprintean

Lasterketa ikusteko sarrerak Alegian erosi ahalko dira, eta biltzen duten dirua Irurako ikastola laguntzeko izango da

Alegiatik Amezketarako bidea egin beharko dute gidariek; Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarria den hirugarren proba da **05**

Udan Saharako haur bat hartu nahi duenak, maiatzaren 3a arte du izena emateko aukera

Tolosaldea Sahararekin elkarteak azaldu duenez, 20 haur etorriko dira, baina helburua kopurua handitzea da **04**



LEGIARLANDA

→ **Tolosaldeko eta Leitzaldeko alkateak ere ziztatzeko prest.** Bi eskualdeetako 30 udalek bat egin dute BERRIA komunikazio proiektuak *Zure ziztada behar dugu* lelopean abiatutako Berriaguna kanpainarekin. Martxelo Otamendi BERRIAko zuzendariarekin bildu da alkateen ordezkaritza zabala, euskarazko komunikabide taldea babesteko sortzen ari den komunitateari bultzada emateko. **03**

'ON' proiektua kaleratu dute Xabier Zeberio tolosarrak eta Pello Ramirezek

Nyckelharpa eta akordeoia uztartu dituzte lanean; aurkezpen kontzertua bihar bertan egingo dute, doan, Tolosako Topic zentroan, 20:00etatik aurrera **02**



Ramirezek eta Zeberioek zenbait abesti jo zituzten aurkezpenean. I. URKIZU

Leitzaldeko herritarrek Areson bertan daukate emaginaren kontsulta

Oraingoz hilean behin eskaintzen du zerbitzua, baina izandako harrera ona ikusita hamabost egunean behin jartzea ari dira aztertzen **07**



Xabier Zeberio eta Pello Ramirez instrumentuen berezitasuna nabarmendu zuten aurkezpeneari. I. URKIZU

Nyckelharpa eta akordeoia uztartu dituzte 'ON' proiektuan

Xabier Zeberio eta Pello Ramirez disko berria bihar aurkeztuko dute, Topic aretoan, 20:30ean

Itzea Urkizu

Bi musika tresnaren «ezohiko» uztartzea eskainiko dute Xabier Zeberio tolosarrak eta Pello Ramirez ordiziarrak, elkarrekin sortu duten ON proiektuko diskoaren aurkezpen kontzertuan. Bihar izango da, 20:30ean, Topic zentroko aretoan.

Ia 13 urte daramatzate, Zeberio eta Ramirezek, elkarrekin lanean; Alos Quartet taldeko kide dira biak ala biak. 2001. urtean Pello Ramirez bere bakarkako bigarren lana argitaratu zuen, eta kantuetako bat grabatzeko Xabier Zeberioaren laguntza izan zuen. «Ozentasun berezia sortu zen entseguak egiten hasi ginenean, zenbait kontzertu egiteko au-

pera probestu genuen», azaldu du Xabier Zeberio.

Bide honetan, musikari bakoitzak bere aldetik sortutako doinuak prestatzen hasi ziren, eta baita jada konposatutako abestien doinuak egiten ere.

ON proiektuko bi kideek nabarmendu duten berezitasuna, «bi instrumentuen ezohiko uztartzea» izan da: «Oso soinua berezia sortzen da biok elkarrekin jotzen dugunean, halako instrumentuak ez baitira askotan uztartu izan».

Xabier Zeberio nyckelharpa jotzen du egitasmo honetan. Jatorriz suediarra da Erdi Aroko musika tresna hau, eta folk musikaren esparruan erabiltzen da batik bat. Pello Ramirezek, berriz, akordeoia jotzen du ON proiektuan. «Oso era berezia du akordeoia jotzeko», dio Zeberio.

Diska, azken geltokia

«Normalean egin ohi denaren aurkako bidea jarraitu dugu guk», azaldu du Xabier Zeberio.

Izan ere, lehenik errepertorioa osatu zuten, ondoren zenbait kontzertu eskaini, eta azken geltokia izan dute diskaren grabaketa.

Honen harira, diskaren beraren grabaketa kontzertu bat baliatuz bezala antolatu zutela azpimarratu dute musikariak: «Emanaldia bera diska batean sartu dugu, hori zen nahi genuena». Elkar estudioetan grabatu dute ON proiektuko lana, eta Enrique Solinis gitarrak jotzailearen laguntza ere izan dute. Era berean, diskaren diseinuan ere izan dute bide-lagunik: Iñigo Arroyo eta Xabi Ubeda tolosarrak.

Proiektuaren izena, berriz, «filosofia gehiegirik gabe» aukeratu zutela dio Zeberio: «Badirudi izenik ez baldin baduzu ez zarela ezer, eta ON izenak hainbat elementu ditu: bi letra ditu eta bi musikari gara; ingelera eta euskarazko hitza izan daiteke; freskoa eta erraza da, azken finean».

Akustika egokienaren bila

Kutzaren eskutik, hainbat kontzertu eskaini ditu bikoteak Gipuzkoan barrena. Hauetariko gehienak, areto txikiak egin izan dituzte. «Eskaintzen dugun emanaldia egokia da Topic zentroko aretoa bezalakoetarako. Izan ere, leku bereziak bilatzen saiatzen gara, nyckelharpa eta akordeoia akustika berezia eskaintzen duten instrumentuak direlako», nabarmendu du Ramirezek. Horrela beraz, areto txikiak edo baselizak izan dituzte oholta, Beasaingo Igarata esaterako; akustika «lehorra» suertatu izan zaienetan, musika katez baliatu behar izan dute.

ON proiektuak ikus-enzuleei helarazi nahi diena musikaren soiltasuna bera da, ordea. Bide horretan, diskan bertan ere kontzertuaren kutsu hori mantentzeko garrantzia izan duela nabarmendu dute Zeberio eta Ramirezek: «Egin dizkiguten kritiketan, musika biluzik ikustearen sentipena izan duela aipatu digu jendeak; gertutasuna transmititu nahi dugu, izan ere, ez dago ama-



Ez dago amarrurik, musika bere naturaltasunean eskaintzen dugu»

XABIER ZEBERIO
Musikaria

«Kontzertuetarako leku bereziak bilatzen saiatzen gara, akustika berezia behar dugulako»

PELLO RAMIREZ
Musikaria

rrurik, musika bere naturaltasunean eskaintzen dute nyckelharpa eta akordeoia».

Biak ala biak, talde handiagotan jotzen ohituak daude, Oskorriekin nahiz Benito Lertxundiarekin, besteak beste; orain, ordea, bi kide bakarrik izanda, gozatzen ari direla azpimarratu du Xabier Zeberio. Diskoa, dendetan eskuragarri izango da datorren astetik aurrera. Kontzertuei dagokienez, berriz, orain hasiko dira agenda osatzen. Mometuz, tolosarrak animatu nahi izan dituzte Topic aretoko doako emanaldira bertarazera.

→ Laburrak

Gaur hasiko dira Bordondantzako entseguak

GIZARTEA › Urteroko moduan, Aste Santuko oporraldiaren ondorengo osteguna izango dute bordondantzariak, datorren ekainaren 24rako, San Joan egunerako, entseguak hasteko. Gaur elkartuko dira, beraz, 20:30ean, Usabal kiroldegian, Tolosako Udaberri dantza taldearen entsegu gelan, eta ekainera bitarte, asteroko hitzordua izango dute bertan.

'Liburuzaina estu eta larri', larunbatean, Topic-en

AISIA › Larunbat honetan, apirilaren 21ean, Iruñeko Gus Marionetas taldearen ikusizuna izango da Topic zentroko aretoan: *Liburuzaina estu eta larri*. Pindelbum andereñoa izango da protagonista txotxongilo emanaldi honetan, eta zenbait egun igaro beharko ditu hainbat alprojekin. Emanaldia 18:30ean hasiko da, eta sarrerak interneten nahiz Topic-eko leihatilan eskuratu ahal izango dira.

'Suite Frantsesa' eleberria izango da aztergai Galtzaundi Irakurle Taldean

XX. mendeko Europako egoera deskribatzen du, euskarara itzuli duten Irène Némirovskyren lanak

I. Urkizu

Hilabete honetako Galtzaundi Irakurle Taldeak gaur izango du hitzordua, eta Irène Némirovskyren *Suite Frantsesa* eleberria izango dute hizpide.

2011. urte amaieran argitaratu zuen Alberdania argitaletxeak, eleberri entzutetsuaren euskarazko bertsioa; Mikel Garmendia Ugarte eta Jose Antonio Sarasola Arregi dira itzultzaileak.

Nobela ezohiko egoeretan idatzia izan zen, eta XX. mendean Europa bizi izan zen tragedia islatzen du, oso nabaria den kutsu autobiografikoarekin. Idazle ukrainarrak alemaniarrak Parisen sartzen direnekin uneekin hasten du liburua, eta zenbaitetik «okupazio garaia iruzi idatzi den fikzio lanik egiantzekoena» dela diote.

Galtzaundi Irakurle Taldeko kideak 19:30ean elkartuko dira, kultur etxean.



Zure ziztada behar dugu →

Udalek eman dute euren ziztada

BERRIA komunikazio proiektuari babesa eman diote Tolosaldeko eta Leitzaldeko udal guztiek

Eredakzioa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko 30 udalek euren babesa eman diote BERRIA komunikazio proiektuari, Berrialaguna kanpainari atxikimendua emanez. Agerraldia egin dute Tolosako kultur etxean, eta bertan bildu da alkateen ordezkariak zabalda, Martxelo Otamendi BERRIAko zuzendariarekin batera, *Zure ziztada behar dugu* lelopean abian jarri den Berrialaguna kanpainarekin bat eginez. Alkateek emandako babesa eskertu du Otamendik, eta BERRIAren garrantzia azpimarratu du: «Gure herriak behar du horrelako hedabide bat».

Otamendik Berrialagunaren kanpaina aurkeztu du, hau da, BERRIA komunikazio proiektua babesteko komunitatea sortzea: «Alde batetik produktua kontsumituz, eta, bestetik, kuota bat emanez. Uste baldin badugu gure herriak euskarazko komunikabide sendo bat behar duela, zerbitzu publikoaren bokazioarekin, eta lortzen badugu hori babestuko duen komunitatea, lan horretan jarraituko dugu». BERRIA proiektua bideragarria egiteko, ohiko diru sarreraz gain, «komunitatearena eskatzen ari gara», esan du Otamendik. «Hilean hamar euro emango dituzten bost mila lagun behar ditu proiektuak aurrera egiteko», gaineratu du.



Eneko Mayo Orexako alkatea, Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria eta Ainhoa Ugalde Irurako alkatea. HITZA

Ibai Iriarte Tolosako alkatea agerraldian izan da, eta bere ustez argi du eskualdea eta Tolosa bera «euskalduna izan behar duela, euskaraz izan behar duela harremanetarako hizkuntza». Tolosaldea neurri handi batean euskalduna dela esan du, baina lan hori «indartu» eta bide horretan «jarraitu» egin behar dela gaineratu du. Horretarako, BERRIA bezalako komunikazio proiektu batek indarra izan behar duela esan du, eta «egoeretara egokitzten jakin» behar duela.

Hain justu, Iriartek bere babesa eta eskualde guztiko alkateen babesa euskaraz izan behar duen garrantzian kokatu du: «Eskualde euskaldun bat nahi badugu, arlo guztietan egon behar du euskaraz, eta komunikabideen arloan ere indartsu egon behar da».

Tolosaldeko alkateak euskararen erabilera arlo guztietan bultzatzeko eskaria egin die herritarrei: «Euskaraz egiten gaitu garena, eta zentzu horretan bere erabilera sustatu behar dugu esparru guztietan: kalean, aisian, lanean... Belaunaldi batzuei euskaraz irakurtzea kostatu egiten zaie, baina ohitura hartu daiteke. Euskal komunitate sendo bat nahi badugu, BERRIA sendo bat behar dugu».

Leitzaldeko bi alkateak izan dira Berrialaguna kanpaina babesten. Ur Algero Aresoko alkateak azaldu duenez, BERRIA «euskarazko egunkari bakarra da eta gure herrietan euskara indartzeko sekulako tresna da». Oier Eizmendi Leitzako alkateak gaineratu duenez, «euskal kultura zabalatzeko proiektu bat da eta guk

horrekin bat egiten dugu. Nire ustez herrian zabaldu beharreko proiektu bat da, landu beharrekoa, eta prest gaude gure presentziarekin horri bultzada emateko». Bi alkateen asmoa da «euskal kultura bultzatzea eta ahal dugun neurrian horren alde lan egitea».

Nafarroan euskaraz bizi duen egoera izan dute hizpide bi alkateek. Eizmendik azaldu duenez, Gipuzkoan egoera «txarra baldin bada, kontu hartu Nafarroan euskaraz bizi duen egoera, euskal kulturak bizi duena». Bestalde, krisi egoera Nafarroan gehiago nabaritzen dela azaldu du: «Udalek bizi duten egoera ekonomikoa ezberdina da Gipuzkoarekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuak krisia erabiltzen ari da euskara eta euskal kulturaren aurka egi-

↓ Egin ziztada**EKARPEN MOTAK**

- Urtean 100 euro, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.
- Urtean 200 euro, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.
- Hilean 10 euro.
- Urtean beste edozein kopuru, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.

EKARPENA EGITEKO BIDEAK

- Telefonoz, 943 304 345 zenbakira deitu eta datuak emanez.
- Interneten, www.berria.info/berrialaguna webgunean agertzen den formularioa betetz.
- Posta elektronikoz, laguna@berria.info helbidera idatziz, dohaintza egiteko orriko datu guztiak emanda.
- Postaz, www.berria.info/berrialaguna dohaintza orrian eskatzen diren datu guztiak betetz, edo eskuorria bete eta ondorengo helbide honetara idatziz: BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 Andoain.
- www.berria.info/berrialaguna webgunean har daitekeen eskuorria bete eta BERRIAra eramanez.

teko». Egoera hori oztopatzen saiatzen ari direla dio, bide batez, zeren alde dauden esateko. «Nafarrak ere euskaldunak gara», dio Algerok, «eta hori islatu nahi dugu, eta ahal dela euskaraz gure lurraldean indar gehiago hartzea nahi dugu. Gobernuak daraman politikarekin, gure herrikerreberba baten antza dute».

Film laburrak ikusteko aukera, 'Rec 3, Génesis' pelikularen saioetan

Filmazpitemo film laburrak bihar eta etzi erakutsiko dituzte; gaur, zine forumean, 'No mires atrás'

I. Garcia Landa Tolosa

Datozen eguneko Tolosako zinema programazioa gaurko zine forumarekin hasiko da. *No mires atrás* filma emango dute, jatorrizko bertsoan, 19:15ean eta 21:45ean. Bihar eta etzi, saio bere-

ziak izango dira. Izan ere Rec 3, Génesis filma emango dute eta horrekin batera Filmazpitemo film laburrak. Bihar saio bakarra izango da, 22:30ean; eta, etzi, bi saio, 19:30ean eta 22:30ean.

Igandeko egitaraua haurrentzako zinemarekin hasiko da. 17:00etan, Lotte 2 emango dute, eta ondoren birritan eskainiko dute Los Idus de marzo filma, 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ohi bezala, ikuslearen eguna izango da, eta Los Idus de marzo pelikula ikusi ahalako da; 20:30ean izango da saioa.

Tolosa Kup «parte hartzailea eta integratzailea» bultzatu nahi dute

Gaurtik hasi eta hilaren 25a arte izena emateko aukera dago, kultur etxean; hilaren 28an eta 29an, lehen jardunaldia

I. Garcia Landa Tolosa

Aurten, Tolosa Kup txapelketan parte hartzea indartu nahi du udalak. Gazteria sailetik bultzatzen den ekimena den heinean, helburu batzuk landu nahi dituzte, «beti ere udalaren asmoa txapelketa parte hartzaile eta integratzailea izatea da». Horretara-

ko helburu batzuk zehaztu dituzte eta horiek herriko taldeekin eta txapelketaren parte hartzaileekin elkartrukatu nahi dituzte.

Hala, hiru helburu zehaztu dituzte Gazteria sailetik. Alde batetik, txapelketaren hastapenetako lagun giroa eutsi eta bultzatu nahi dute. Horrez gain, txapelketan emakumearen presentzia bermatu nahi dute. Azkenik, parte hartuko duten taldeen eta bere partaideen izaera ahal den anitzera izatea nahi du udalak.

Parte hartu nahi dutenek, horretarako aukera dute gaur hasi eta hilaren 25a bitartean, kultur etxean edota 943 67 03 83 zenba-

kian. Taldeak osatzeko zozketa hilaren 25ean izango da, 18:00etan, kultur etxean. Lehenengo jardunaldia hilaren 28an eta 29an izango da.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Izozkailuak.** Bi izozkailu bertikal salgai, no frost motakoak, eta Liebherr eta Bosch markakoak. Bakoitza 250 eurotan. Interesatuak, deitu 610 348603 telefono zenbakira.

Saharako haurrak Tolosaldeko familietan hartzeko deia egin dute

Oporrak Bakean 2012 programa aurkeztu dute Tolosan; eskaerak egiteko epea maiatzaren 3an bukatzen da

Eneritz Maiz Tolosa

Oporrak Bakean 2012 programa atzo aurkeztu zuten, Tolosaldeko udaletxean. Tolosaldeko Sahararekin elkarteko kideekin batera, harrera familiak eta eskualdeko udaletako ordezkariak izan ziren.

Ahalik eta harrera familia gehien izan nahi dituzte. Tolosaldeko 20 haur inguru etorriko dira. Kopuru hori handitzea izango da helburua, eta horretarako aukera dago oraindik. Edozein familiak parte hartu dezake programa honetan, eta haur bat etxean hartu nahi dutenek izena eman dezakete. Maiatzaren 3a, osteguna, da eskaera egiteko azken eguna. Seme-alabak dituzten familiak, bikoteak, gazteak, jubilatua, ... guztiak dute aukera.

Programa honekiko interesa duen edonork bere herriko gizarte zerbitzuetara jo dezake. Inongo konpromisorik gabe bertan eskuraturako ahal izango da informazio



Eskualdeko udalen ordezkari Ibai Iriartek eta Eli Izagirre elkarteko kideak hitz egin zuten. E. MAIZ

guztia. 7 eta 12 urte arteko neska-mutilak dira, eta bi hilabetez egongo dira. Familiak bere gain hartu beharko du adingabearen egonaldi osoa, familiako beste kide bat balitz bezalaxe. Kanpamenduetako bizi baldintza latzak direla eta, programan parte hartzen duten haur guztiei ikuskapen medikoa egitea komenigarria izaten da.

Guztien nahia eta helburua, «kanpaina honez gain, Saharar herriari buruz hitz egin ahal izate

tea da», nabarmendu zuen Eli Izagirre Tolosaldeko Sahararekin elkartasuneko kideak. «Helburua bi hilabetez haurrak errefuxiatu kanpamenduetatik atera, eta bi hilabetez ondo elikatzea da. Batez ere, saharar herriak bizi duen ezohiko egoeratik ateratzea», dio.

Oporrak Bakean programa duela 25 urte jarri zen martxan, eta orduz geroztik urtero-urtero etortzen dira haurrak Sahararik Euskal Herrira. Aurten, 2012. ur-

tean, ia 400 haur etorriko dira Euskal Autonomia Erkidegora, eta kopurua iaz baino zertxobait txikiagoa izango dela nabarmendu zuten.

Behin behineko programa

Behin behineko eta oinarriko programa bezala sortu zela ekarri zuten gogora, eta urtero esan ohi duten moduan, «ea aurtengoa azken urtea den», nabarmendu zuten.

Tolosaldeko udal ordezkarien

izenean, Ibai Iriarte Tolosaldeko al-kateak hitz egin zuen. «Mendebaldeko Sahara eta Euskal Herriaren artean betidanik egon da elkartasun eta babes handia. Bi herriek sufritzen duten gatazka politikoaren ondorio da», esan zuen. Aurten ere neska-mutilko hauei udaletatik babesa emango dietela adierazi zuen. «37 urte dira, eta belaunaldi askok ez dute euren kosta ezagutu. Arrantzaleen seme-alabek ez dute itsasorik ezagutu. Eta gure txikitasunean, besterik ez bada ere, haur horiek eskualdean jasoko ditugu», nabarmendu zuen Iriartek. «Hobere azken urtea izatea litzateke».

Esperientzia aberatsa eta polita dela adierazi zuten harrera familiek, eta gehienek errepikatu egiten dutela esperientzia.

«Gure herrietan, haur horiei, bi hilabetez bada ere, kanpamenduetako baldintza gogorrei aurre egiten lagunduko diegu osasuna zainduz eta indartuz. Baina bestealde beraien herriaren berri emanez. Hona datozen haurrak beraien lurra nahitaez utzi behar izan dituztelako datoz, eta beraien gatazka politikoa indartu behar dugu, beraien ahotsa entzunarazi behar dugu hemen eta gure elkartasuna hemendik haratago, urte osoan zehar erakutsi behar diegu», nabarmendu zuen Ibai Iriartek.

Elkartasunezko proiektu honekin bat egitera animatu nahi dituzte eskualdeko herritarrak.

Eskola Txikietako gurasoei zuzendutako jardunaldiak

Etzi Ikaztegiako udaletxean elkartuko dira; Roser Boix, Juan Karlos Alonso eta Joxe Amiama izango dira

E. Maiz Ikaztegieta

Eskola Txikietako gurasoei zuzendutako II. Jardunaldiak izango dira Ikaztegiatan. Larunbatean, hilaren 21ean, 09:30etik aurrera udaletxean elkartuko dira. Aurtengo egitarauan, lehenik eta

behin, bertaratzen diren guztiei zuzendutako hitzaldi nagusi bat izango da. Gaztelera izango da Herrialde Katalanetatik etorriko baita Roser Boix hizlaria. Ondoren, hiru solasaldi izango dira: Roser Boixe, Juan Carlos Alonso edota Joxe Amiamarekin.

Roser Boixerekin elkartzten direnek, hitzaldi nagusian azaldutako puntuak, kezka, galde-eskeak, ... egiteko aukera izango dute. Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik, *Nola landu heriotza haurrekin* gaia jorratuko dute. Joxe Amiamaren eskutik,

berriz, *Nire seme-alabaren arrakasta eskolan: Familia eta Eskolaren arteko harremanak, aldagai inportantetariko bat izango da hausnarketarako.*

Adituak dira haurren hezkuntzan, eta Roser Boix, Bartzelonako Unibertsitateko Didaktika eta Hezkuntza antolakuntza departamentu buru da. Eta Herrialde Katalanetako Landa Heziketarako Ikuskaritzako edukien arduraduna da. Alonso, gurasoei zuzendutako formazio edo jardunaldi saioak prestatzen aritzen da, ohiko psikologo lanaz gain.

↓ II. Jardunaldia

EGITARAUA

- 09:30. Harrera.
- 09:45-11:00. Hitzaldi nagusia. Roser Boix izango da hizlaria: *El valor pedagógico de la multi-graduación en ele aula rural* izango da jorratuko duen gaia.
- 11:00-12:30. Hiru solasalditan banatuko dira izena eman dutenak. Roser Boix, Juan Karlos Alonso eta Joxe Amiama izango dira hiru adituak.

Amiamak irakasle eta psikopedagogia ikasketak ditu. Gaur egun Filosofia eta Hezkuntzaren Zientzien Fakultatean aritzen da. Guraso eskolekin, irakasleekin eta Berritzeguneekin aritu izan da.

Bukaeran, mokadutxo bat izango da parte hartzaile guztientzat. Era berean, jardunaldiak irauten duten bitartean, haurren zaintza zerbitzua eskainiko da.

Eskola txikien festaren 25. urteurrena dela eta, jardunaldi berezia antolatuko nahi izan du Eskola Txikien koordinakundeak.

oalegi@hitza.info



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du



LAGUN ARO GBC
Fiact Mutua Juventut
saskibalo partida

Apirilak 22
Ilgandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

RALLYESPRINTA

Apirilak 21 - Larunbata
Irteera: 15:00etan
Alegiatik Amezketara



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak

Punta-puntako gidariak egongo dira V. Ñañarri Rallyesprintean, etzi

Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai irteera puntuan, hau da, Alegian, zortzi eurotan

Asier Imaz Irura

Euskal Herriko Rallyesprint Txapelketako gidaririk onenak eskualdean izango dira etzi, hilaren 21ean. Alegiatik Amezketara bitartean, V. Ñañarri Rallyesprinta jokatu da, Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarria den hirugarren proba. Irurako ikastolaren alde dirua biltzeko helburua duen lasterketarako sarrerak, egunean bertan jarriko dituzte salgai irteera puntuan, hau da, Alegian.

Hain justu, Irurako ikastolaren aurrean aurkeztu zuten proba, atzo. Iñigo Iñurruta koordinatzailea, Xabier Saizar ikastolako zuzendaria eta Jon Muñoz Hondarribiko Sardara motor elkarteko kidea aritu ziren lan horretan. Guztiak ibili dira antolatzaile lanetan, elkarlanean, eta proba urtetik urtera gero eta ospe gehiago hartzen ari dela esan zuten: «Urtetik urtera gero eta gidari gehiago etortzen dira Ñañarri. Euren hitz egitean gustura agertzen dira, eta ondorioz, gu ere horrelaxe gaude. Helburu nagusia ikastola diruz laguntzea da, eta horregatik jendea dei egiten diogu, proba gerturatzeko eskatuz. Alde batetik, ikastola laguntzeko aukera izango dute, eta bestetik, egun pasa ederra bizitzeko. Komisarioei kasu egitea ere eskatzen dugu, txakun ibiltzearekin batera», azaldu zuen Iñigo Iñurruta.

Hondarribiko Sardara motor elkartean laguntzaz antolatzen da Ñañarri proba. Jon Muñoz bertako kidea da, eta rallyesprintaren hainbat datu tekniko eman zituen atzo: «Euskal Herriko Txapelketaren barruan jokatzeko den hirugarren proba izango da Ñañarrikoa. Orain arteko parte har-



Xabier Saizar, Iñigo Iñurruta eta Jon Muñoz rallyesprinta aurkezten, atzo. A.I.

terik handiena izango da, 77 kotxe egongo baitira larunbatean. 09:30ak aldera, Alegiako Bazurka industrialdean, auto guztiak elkartuko dira, eta bertan egongo dira 12:30ak arte. Jendeak bertan izango du auto guztiak ikusteko aukera. Proba 15:00etan hasiko da, eta maila altua duela esan behar harra dago; zati oso azkarrak ditu, eta niretzat behintzat, oso ikusgarria da. Alegia, Orendain, Abaltzisketa eta Amezketako errepidea 14:00ak aldera itxiko da. Proba bukatu arte, ibilbidea itxita egongo da, hau da, 19:00ak ingurura arte».

Xabier Saizar ikastolako zuzendariak, bere aldetik, esker oneko hitzak besterik ez zituen: «Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiet rallyesprinta egitea ahalbidetu duten guztiei. Lehenik, ibilbide barruan aurkitzen diren herrietako udalei, euren baimenik gabe ezinezkoa izango baitzen hau aurrera ateratzea. Bestetik, boluntario lanetan ibili

eta ibiliko diren guztiei, jende mordo, eta baita babesa eman duten kolaboratzaileei ere. Jendea, berriz, proba anima daitezzen eskatuko nieke».

Hainbat datu

Irteera puntua Alegian izango du V. Ñañarri Rallyesprintak. Sarrerak erosteko aukera bertan egongo da. Ikusleek, beraz, 8 euro ordaindu beharko dituzte proba sartzeko. Lasterketan parte hartuko duten autoak 15:00etan irteerako Orendain aldera. Hemendik Abaltzisketarako bidea hartuko dute, Amezketako helmugara iristeko. Guztira 10 km eta 350 m inguru dituen ibilbidea da. Autoen ezaugarrien arabera, hainbat mailatan lehiatuko dira gidariak, baina guztiek hiru itzuli eman beharko dizkiote ibilbidea. Legezko kontaktak egin ondoren, sari banaketa Amezketako plazan izango da. Aurreikuspenen arabera, proba 19:00ak aldera amaituko da.

↓ Sailkapena

Euskal Herriko Txapelketa

1. Joseba Zapirain	58	puntu
2. Joxe Labaka	54	p
3. David Ardions	48	p
4. Ander Barainka	44	p
5. Iban Tarsicio	37,5	p
6. Ander Arana	35	p
7. Holke	32	p
8. Jesus Perez	30	p
9. Xabier Agirre	28	p

Ñañarri Rallyesprintean izena eman duten gidarietako batzuek

Joseba Zapirain (Peugeot 206 WRC)
Joxe Labaka (Mitsubishi Evo V)
Ander Barainka (Peugeot 106 S16)
Iban Tarsicio (Fors Escort Cosworth)
Ander Arana (Peugeot 309 GTI 16 V)
Xabier Agirre (Citroen Saxo VTS)
Txus Jaio (BMW 320i)
Iñaki Alberdi (BMW M3 E30)
Aingeru Castro (BMW M3 E30)
Toni Evangelista (Porsche 911)
Holke (Peugeot 206 XS)
Iñigo Alberdi (Renault Clio Williams)
Markos Landa (Opel Kadett GSI 16V)

Orendaingo herritarrei deialdi berezia egin diete antolatzaileek

➔ Ñañarri Rallyesprinteko arduradunek, ezbeharren bat gertatuz gero DYARA deitzea eskatu diete orendaindar guztiei. Lasterketarako anbulantzia herriaren sarreran egongo dela azaldu dute, eta hau herritarren eskura jarriko dute antolatzaileek. Horretarako, DYARA zuzenean deitzea eskatu dute, hain zuzen ere, 943 46 46 22 zenbakira.

Lasterketak irauten duen bitartean, Orendain erabat hartuta gelditzen da, errepidea itxita egoten baita. Ondorioz, beti ere ezbeharren bat gertatuz gero, gertuen izango duten anbulantzia lasterketak jartzen duena izango da, eta horregatik egin nahi izan dute eskari berezi hori antolatzaileek.

→ Laburrak

Aizkardiren mendi irteera igande honetan izango da

AMASA-VILLABONA ➔ Aizkardi mendi taldeak irteera antolatuko du igande honetarako, Bardeetan barrena. Valaraña, Santxo Abarka eta Fustiñanako ibilbidea egongo dute, 28 kilometrokoa. Bizikletaz egiteko aukera ere egongo da. Izena emateko epea gaur bukatzen da, eta horretarako, Aizkardiren bulegora joan behar da, 20:00etatik 22:00etara tartean. 649 71 71 82 zenbakira deituta ere eman daiteke izena. Villabonatik 06:30ean irteerako dira hilaren 22an, hain zuzen ere, Olaederra kiroldegitik.

Gaztetxean hiru kontzertu egongo dira, bihar

ANOETA ➔ Gazte Asanbladako kideek kontzertuak antolatu dituzte ostiral honetarako, Anoetako gaztetxean. Jaialdia 23:00etan hasiko da, eta ondorengo taldeak egongo dira bertan: Jostion, Gaueko Itzalak eta Mendeku Itxua. Sarrera bost eurokoa izango da.

Liburuaren merkatu txikia, hurrengo astean

ANOETA ➔ Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, Liburuaren Merkatu Txikia antolatuko dute Anoetan. Liburutegiko hainbat liburu prezio sinbolikoan jarriko dituzte salgai, hilaren 23tik 27ra bitartean. Saltokia udaletxe aurrean jarriko dute, 17:30etik 19:30era. Liburuaren mailegu zerbitzua 16:00etatik 17:30era egokituko dute Merkatu Txikia dela-eta.

Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko aukera

ANOETA ➔ Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 23an, astelehenean, amaituko da, 13:00etan. Lanak udaletxean edo liburutegian aurkeztu beharko dira. Kartelean Anoetako Jaiak 2012 agertzea beharrezkoa izango da.

Bertako informazioari, bertako produktuak

Egin HITZAREN harpidedun apirilaren 3tik ekainaren 1era, eta jaso

Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana

hitza info

Harpidedun egiten diren guztien artean

Lekeitioko Metrokua hotelean, bi personarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako: 902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

XXXIV. Herri Krosa hartuko du Leitzak larunbat arratsaldean

Aurrera elkartearen antolaturiko probak bi ibilbide izango ditu, eta zazpi mailatan ariko dira lasterkariak

Iñigo Terradillos Leitza

Korrikalariz beteko da Leitza etzi arratsaldean, izan ere, Aurrera kirol elkarteak, Leitzako Udaleren eta merkatarien laguntzarekin, Herri Krosa antolatu du. Aurtengoa 34. proba da. Korrikalariak 16:15ean abiatuko dira zazpi mailatan banatuta.

Bi ibilbide izango dira ohiko moduan. Benjaminak herriko kale nagusitik irtengo dira, eta 800 metro egingo dituzte, plazara iristeko. Beste mailakoak herriko kale nagusitik aterako dira, eta herrian 2.500 metroko ibilbidean egin beharreko itzuliak eginda, plazan amaituko dute lasterketa.

Irteerako ordutegiari dagokionez, 16:15ean benjaminak aterako dira. Alebin eta infantilak 16:30ean aterako dira. Kadete eta juniorrak 17:00etan, eta besteak 17:30ean.

Urtetik urtera ez du aldaketa handirik izaten lasterketak. Aurtengo aldaketetako bat, izen ema-



Lasterkari ugari izango dira Leitzan larunbat arratsaldean. HITZA

tean dago. Beste urteetan bezala, egunean bertan eman ahal izango da izena, Aurrera kirol elkartearen, 15:30etik 17:00etara. Baina, aurretik ere eman ahal izango da izena. Horretarako, www.kirol-probak.com web orria erabili behar da.

Aurrera elkarteak bazkideek 9 euro ordainduko dituzte, eta gainerakoek, txiparen arabera, 9 edo 10 euro. Lasterketa egunean bertan izena ematen duten Aurrera elkarteak bazkideek 10 euro ordainduko dituzte, eta gainerako-

ek 15 euro. Lasterketa hasi baino 30 minutu lehenago itxiko da izena emateko epea.

Korrikalariak proba aurreko egunetan beraien izena parte hartzaileen artean dagoen ziurtatu beharko dute. Eta baita, izenaren ondoan ordainketa egina duela agertzen den begiratu ere.

Sari potoloak

Sariei dagokienez, benjamin, alebin, infantil eta kadetei dominak emango zaizkie. Beste guztiak kamiseta bana jasoko dute.

Trofeoak maila bakoitzeko lehenengo eta bigarren sailkatuari, eta lehenengo leitzarrari, emaniko dizkiete. Diru sariak, berriz, sailkapen orokorreko lehen lau korrikalariak jasoko dituzte, mailak kontuan hartu gabe.

Bestalde, Herri Krosaren ondoren, festa txikia egingo dute Aurrera elkarteak kideak. Izan ere, sari banaketaren ondoren, arratsaldekoa egingo dute karrapean, eta ondoren Aurrera elkartean bilduko da animatzen den oroafari legea egiteko.

→ Laburrak

Herriko jaiak antolatzeko bilera egingo dute gaur

BERASTEGI › San Lorenzo festak antolatzeko bilera egingo du gaur jai batzordeak, udaltxean, 20:30ean hasita. Berastegiko Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu bileran parte hartzera.

Bertso lagun artea osatu asmo dute Berastegin

BERASTEGI › Berastegi eta bertsoa uztartu asmoz, bertso lagun arte bat martxan jarri nahi dute herrian. Horretarako, herriko bertsozale, bertsolari edota bertsolaritza jorratu nahi duten guztiak bilerara deitu dituzte. Gaur izango da hitzordua, aparkaleku azpiko lokalean, 20:00etan.

Ibarrako Udalak Maialen Muñoz zoriundu du

IBARRA › Ibarrako Udalak Maialen Muñoz zoriundu du Gernikako XVII. Nazioarteko duatloian 23 urtez azpiko mailan Euskal Herriko txapeldu izan delako. «Ezin da ukatu ikaragarriko emaitza dela eta lehen urtea izaki meritu handia duela», azaldu dute udaletik. Garaiena nagatik zoriointzeaz gain, zorte ona opa nahi dio Ibarrako Udalak sailkapen nagusirako.

Hondakinei buruzko jardunaldi informatiboak

ELDUAIN › Hondakinen inguruan jardunaldi informatiboak antolatu dituzte Elduainen. Lehen ekitaldia bihar izango da, kultur etxean, 18:00etan hasita. *Comprár, tirar, comprár* dokumentala izango da ikusgai. Beren kontsumoa areagotzeko produktuen iraupenaren murriztearen ingurukoa da. Bestalde, datorren ostegunean, hilaren 26an, Zero Zabor taldeko Ainhoa Arrospidek hondakinen inguruko hitzaldia emango du, Elduaingo kultur etxean, 19:00etan. Zero zabor helburua zertan datzan azalduko du. Elduaingo Udaletik jardunaldietan parte hartzeko gonbita luzatu diete herritarrei.

Santio jaiak prestatzeko jai batzordearen bilera

VILLABONA › Villabonako Santio jaiak prestatzeko jai batzordeak gaur egingo du lehen bilera. Udaletxean izango da, 19:00etan hasita. Villabonako Udaletik herritar guztiak egin diete bertan parte hartzeko gonbita, «ideiak eta iradokizunak eman eta jaien antolakuntzan ardurak hartzeko».

Berastegiko Ibilaldi Neurtua, maiatzaren 6an

20. urtez egingo dute Basurde elkarteak antolaturiko proba; 31 kilometroko luzera duen ibilbidea da

I. Terradillos Berastegi

Berastegiko Basurde elkarteak antolatuta, 20. urtez jarraian, mendi martxa egingo dute bi asteren buruan. XX. Ibilaldi Neurtua, maiatzaren 6an izango da, eta dagoeneko guztia prest dute.

Berastegiko plazatik 07:00etan irtengo dira mendizaleak, eta 31 kilometroko ibilbidea egingo dute. Larte, Uli, Ulizar, Urto, Ipuliño, Gorosmendi, San Lorenzo edota Belabieta zeharkatuko dituzte bidean zehar. Tartean, lau kontrol gune igaro beharko dituzte, Larte, Uli, Urto eta Ipuliño, eta hiru zerbiztu eremu ere egingo dira. Bide guztia egiteko gutxienez sei ordu eta erdi eta gehienez zortzi ordu izango dituzte mendizaleak. Ibilaldi neurtua bukatzen duten parte hartzaile-

guztien artean mendiko materiala eta bestelako opariak zozketatuko dituzte.

Urtero herritar eta kanpotar askok parte hartzen dute ibilaldi honetan. Azken urteetan 130 parte hartzaile inguru izan ditu, baina aurtengoak gehiago izatea espero dute antolatzaleek. Izan ere, lau urtetik behin egiten den Aralarko Adiskideak elkarteak antolaturiko XIV Orduen mendi martxa izango da, eta hori nabaritzen da urtean zehar antolatzen dituzten mendi ibilaldietan, mendizaleek entrenatzeko baliatzen baitituzte.

Mendiko kirola bultzatzeaz gain, Berastegi ezagutaraztea da ekimenaren helburua. Ibilaldi Neurtuan parte hartzeko abiapuntuan bertan eman ahalko da izena, herriko plazan, 6 euroren truke.

Bestalde, egun berean, Berastegiko guraso elkarteak San Lorenzo inguruan antolatu ohi duen mendi martxa izango da, ohi bezala. Beraz, gazte eta haur ugari ere izango dira egun horretan mendian.



300 lagun inguru espero dituzte Berastegiko Ibilaldi Neurtuan. HITZA



Aresoko udaletxearen atzeko aldetik sar daiteke emaginaren kontsultara. HITZA

Leitzaldeko herritarrentzat emaginaren kontsulta zabandu dute Areson

Hilean behin eskainiko du zerbitzua Aresoko udaletxean; aurrera begira hamabostero izatera pasa daiteke

Iñigo Terradillos Areso

Emaginaren zerbitzua behar duten Leitzaldeko emakumeek ez dute Irurtzunera, Etxarri-Aranatzera edota Iruñeara joan beharrik izango aurrerantzean. Izan ere, dagoeneko martxan da Areson Leitzaldeari zuzenduriko emaginaren kontsulta. Oraingoan, hilean behin izango da zerbitzua, baina, litekeena da izan duen harrera «onak» bultzatuta hamabostean behin izatea aurrera begira.

Aspaldian egin zuten eskaera bete da azkenean. Ez baita gaurko kontua Leitzaldean emagina izatearena. Onintza Bengoetxea Leitzako Udaleko zinegotziak gogoratu duenez, «aurreko legealditik behintzat eskaera egin zegoen».

Bada, behin eskaera onartuta, kopena zehaztu behar zuten, eta kontsulta Areson jartzeko erabakia hartu zuten. «Leitzako osasun etxean ez dago gela librerik, eta Aresoko udaletxean kontsulta bertan egiteko moduko gela bat libre dagoenez, leku egokia zela ikusi genuen», azaldu du Bengoetxeak. Hain zuzen ere, Aresoko udaletxeko atzealdeko atetik sartuta joan daiteke zuzenean kontsultara.

Emagina baino gehiago

Onintza Bengoetxeak azaldutakoaren arabera, Areson eskaintzen hasi diren zerbitzua ez da soilik haurdun dauden emakumeei zuzendua. «Batetik, haurdun dauden emakumeentzat eta haurdun geratu nahi dutenentzat emaginaren zerbitzua dago; bestetik, gazteentzat informazioa emateko ere erabil daiteke, antisorgailuen inguruan, esaterako; adin batetik gorako emakumei ere zuzendua ere bada kontsulta, menopausiaren inguruko kontsultak egiteko adibidez; ia gine-

kologia zerbitzua dugu, beraz eskualdean».

Harrera «oso ona»

Iragan astelehenean izan zen emaginaren bigarren kontsulta Areson. Bai Leitzan, bai eta Areson ere «oso gustura» hartu dute zerbitzu berria. «Dagoeneko herritar guztiak badakite, eta oso pozik daude etxetik gertu emagina dutelako; izan ere, lehen Iruñean edota Etxarrin eskatu beharra izaten genuen hitzordua, eta orain herrian bertan dugu», azaldu du Axun Arratibel Aresoko Udaleko zinegotziak.

Asko izan dira lehen bi kontsulta hauetan Leitzatik, Goizuetatik edota Aranotik Aresora gerturatu diren emakumeak. Hori dela eta, ez dute bazterten aurrera begira hilean behin izan ordez, hamabostean behin izatea. Bestalde, emagina bera ere «oso gustura» azaldu dela adierazi dute bi udaletatik. «Oso borondate handia erakutsi du, eta zerbitzua handitzeko prest ere azaldu da. Berez, eskertzekoa da».

Gaztelekua prozesu parte hartzailean zehaztuko dute

Amezketako 12 eta 17 urte bitarteko nerabeak deitu dituzte bihar, kultur etxean, egingo duten lehen bilerara

I. Terradillos Amezketak

Amezketako Udalak gaztelekua bezalako nerabeentzako zerbitzua definitu eta martxan jarri ahal izateko prozesu parte-hartzailea martxan jarriko du. Horretarako, 12 eta 17 urte bitarteko herriko gazteek zerbitzu horren inguruko iritziak eta iradokizunak eman ahalko dituzte. Hain zuzen ere, bihar hasiko da prozesua, arratsaderako deitu duten bileran.

Udaletik diotenez, parte hartze prozesuan adostutakoa errespe-

tatuko da. Parte hartzen duten gazteei informazioa eman eta iritzia eskatuko zaie, eta hainbat gairen inguruan adostasunera iristea izango da helburua. «Kasu zehatz batzuetan mugak ondo zehaztuz erabaki batzuk hartzeko eskumena emango zaie, parte hartzaileek prozesuan erabakitzeke gaitasuna izango dutelarik zenbait puntutan», azaldu dute udaletik.

Amezketako 12 eta 17 urte arteko nerabeak dira erabaki beharreko hainbat alderdiren inguruan hausnartu eta ekarpenak egingo dituztenak. Bihar izango da lehen bilera, 17:00etan hasita, kultur etxean, eta udalak gazte guztiak animatu ditu «beren parte hartzea oso garrantzitsua baita». Prozesuaren jarraipena udaleko web orriaren bidez burutuko dute.

Hondakinen eta uraren inguruan batzarra egingo dute bihar, Berastegin

Eskolako ganbaran izango da, 20:00etan; gaien garrantzia dela eta, herritar guztiak animatu ditu udalak

I. Terradillos Berastegi

Informazio batzarra egingo du Berastegiko Udalak bihar, eskolako ganbaran, 20:00etan hasita. Bertan, hondakinen eta uraren kudeaketaren inguruan egingo diren aldaketan berri emango die herritarrei.

Hondakinei dagokienez, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kide bat joango da Berastegira. Herritar egin nahi duten hondakinen bilketaren sistema aldatetari buruz informazioa eta argibideak emango ditu.

Bestetik, Gipuzkoako Urak-eko kide bat ere izango da batzarrean. Berastegin uraren kudeaketaren inguruan egingo diren aldaketan zergatiak azalduko ditu hizlariak.

Berastegiko Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu, «bi gai hauek herrian garrantzi handia baitute».

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOSE MARI ORTIZ DE ZARATE URRUZOLA

'Fonsi'

Patxi ku kalean jaio eta bizi ta joan haiz bertatikan Tartearen hire lanen emaitza nabarmen dek oraindikan Kirol arloan, lagun artean sindikal ta politikan eta guztia muxutrukean

ondorenik ez patrikan! Azken urteak igaro dituk motel zamar, bakarrikan Bisita gabe utzi ote dek auzoko tabernarrikan? Gaur hiretzako etzeukeagu esker ona besterrikan.

AGUR FONSI.
HIRE KUADRILLA

Oharra: Agur ekitaldia, 2012ko apirilaren 20an, Barren plazan, arratsaldeko zazpietan.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Irura.** Zero Zabor astearen barruan gaur, Irura Zero Zabor taldearen aurkezpena eta Gipuzkoa Zero Zaborren hitzaldia, 19:00etan, plazan, ikastolako ekitaldi aretoan.
- **Tolosa.** EAJ alderdiaren Uzturre Fundazioak hondakinei buruzko informazio kanpaina antolatatu du, eta ekimenaren barruan gaur, XXI. mendeko zaborren kudeaketa hitzaldia entzun ahal izango da 20:00etan, Topic zentroan. Garbiker enpresako arduradunaren Mikel Huizi izango da hizlaria.
- **Tolosa.** San Joan eguneko Bordondantzako entsegua gaur, 20:00etan, Usabal kiroldegian.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, 1. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Lander Huarte Leunda (Irura). Gaur 6 urte. Aiton-amona, osaba-izeba eta Amaiurren partez zorianak!

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia, herriko hainbat puntutan

Tolosako Usabal kiroldegian, Beotibar frontoian eta Hiribusean kartelak jarriko dituzte

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Beotibar frontoian, Usabal kiroldegian eta hiribusean errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egingo du Tolosako Udalak, aurrerantzean. *Egizu deklarazioa euskaraz!* lelopean kartelak jarri dituzte aipatu tokietan, eta helburua Tolosaldeko 5.000 pertsona baino gehiagok errenta aitortpena egiterakoan euskara aukeratzea da, Tolosako Inaki Irazabalbeitia Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko zinegotziak aipatu zuenez. Era berean, kanpaina «ekologikoago» bat egin nahi izan dute, eta aurreko urteetan postontzietan informazioa banatu badute ere, aurten beste modu bateko deia egitea erabaki dute udal arduradunek.

Irazabalbeitiak Beotibar frontoian eman zuen ekimenaren berri, Inaki Azaldegi Tolosako Udaleko euskara teknikariarekin eta kontseiluko Juanlu Aranbururekin batera. Horiek horrela, bereziki gazteei egin diete dei eta bel-

durak baztertzeko beharra ere azpimarratu zuten. «Gazteek, guztiak edo ia guztiak, dakite euskaraz, eta horregatik egiten diegu dei errenta aitortpena euskaraz egiteko. Beldurrak baztertzeko garaia ere bada, gainera, errentako hitz tekniko asko ez baitugu

ulertzen, ez gaztelaniaz eta ezta euskaraz ere», azaldu zuen Irazabalbeitiak.

Juanlu Aranburuk bere alde-tik, eskualde mailan horrelako deia egitea oso garrantzitsua dela nabarmendu zuen, batetik; euskararen normalizazio prozesuan

elkarlana bultzatzea ezinbestekoa dela esan zuen, bestetik; eta bukatzeko, euskara etxetik edo eskoletatik atera, eta egunerokotan txertatu behar dela gaineratu zuen. «Euskara egunerokotasunera zabaldu behar da, eta euskaraz bizitzeko beste urrats bat da errenta aitortpena euskaraz egitea». Orain bi urte Tolosaldeko 3.800 pertsonak aukeratu zuten euskara, iaz ia 5.000 lagunek, eta aurten kopuru hori gaintzea da helburua.



Beotibar frontoian eman zuten atzo, ekimenaren berri, atzean kartela zutela. R. CALVO

BERRIA egunkarian udan KAZETARI PRAKTIKAK egiteko deialdia

PROBA EGITEKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: Andoingo Martin Ugalde kultur parkea.
ORDUA: arratsaldeko lauretan.

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 1. gelan.
ORDUA: eguerdikoko hamabietan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).
ORDUA: goizeko bederatzi eta erdietan.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratzeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre).
ORDUA: goizeko hamarretan.

Probara curriculuma ekarri behar da